# L A N   H I T Z A R M E N A

## GIPUZKOA

2004-2005-2006

LAB

Arte grafikoak

Artes graficas  Arte grafikoak

## EUSKO JAURLARITZA

### JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

**Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza**

Hitzarmen Kolektiboak Agindu zk. 220/04-F. 1301

*ERABAKIA, 2005eko urtarrilaren 19koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Gipuzkoako Lurralde ordezkariena. Honen bidez ebazten da 2004-06rako Gipuzkoako «Arte Grafikoak eta Industria Laguntzaileak Paper eta Kartoiaren Maneiatuak eta Argitaletxeak»-en hitzarmen kolektiboaren aldaketak (23, 31, 35, 40 art., I, II, III eta IV eranskina) erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea zk. 2000045).*

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

*Lehenengoa.* Langileen Estatutu Legearen 90.2 artikuluak, martxoaren 24ko 1/1995 Errege Dekretu Legegilea (1995-3-29ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritza honi dagokio, otsailaren 12ko 44/2002 Dekretuko 22.1.g artikuluak –Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko egitura organika eta funtzionala ezartzen duena (2002-2-20ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*)– dionarekin bat etorriz eta martxoaren 2ko 39/1981 Dekretuarekin (1981-4-2ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*) eta maiatzaren 22ko 1.040/1981 Errege Dekretuarekin (1981-6-6ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*) –hitzarmen kolektiboen erregistroari buruzkoak– lotuta.

*Bigarrena.* Sinatutako hitzarmenak betetzen ditu lehen aipatutako Langileen Estatutu Legearen 85, 88, 89 eta 90 artikuluek xedatutako baldintzak.

Honen ondorioz,

ERABAKI DUT

*Lehenegoa.* Hitzarmen Kolektiboen Erregistroaren Gipuzkoako Lurralde Atalean inskribatu eta gordailu egiteko agintzea eta aldeei jakinaraztea.

*Bigarrena.* Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara dadin xedatzea.

*Hirugarrena.* Ebazpen honen aurka, adminiztrazio-bidea amaitzen ez duena, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango da Lan eta Gizarte Segurantzako zuzendariaren aurrean, hilabeteko epean, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legeko 114 artikuluan eta hurrrengoetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Donostia, 2005eko urtarrilaren 19a.—Gemma Jauregi Beldarrain, Lurralde Ordezkaria.

(695) (825)

*Gipuzkoako Arte Grafiko eta Industria Lagungarrien, Paper eta Kartoizko Manipulatuen eta Argitaletxeen Arloko 2004-2006 aldirako hitzarmen kolektiboari egindako aldaketen sinaketa-akta*

Donostian, 2004ko azaroaren 24an, 10:00etan, Lan Harremanen Kontseiluaren Donostiako lurralde-egoitzan, alboan adierazitako jaun-andreak bildu dira, sindikatuen eta

## GOBIERNO VASCO

### DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

**Delegación Territorial de Gipuzkoa**

Convenios Colectivos N.º Orden 220/04-F. 1301

*RESOLUCION de 19 de enero de 2005, de la Delegada Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se dispone el registro, publicación y depósito de modificaciones del Convenio Colectivo de «Artes Gráficas e Industrias Auxiliares, Manipulados de Papel y Cartón y Editoriales» de Gipuzkoa para 2004-06 (art. 23, 31, 35, 40, anexos I, II, III, y IV) (código de convenio n.º 2000045).*

FUNDAMENTOS DE DERECHO

*Primero.* La competencia prevista en el art. 90.2 de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, Real Decreto Legislativo 1/1995, de 24 de marzo (*Boletín Oficial del Estado* de 29-3-1995) corresponde a esta autoridad laboral de conformidad con el art. 22.1.g del Decreto 44/2002, de 12 de febrero (*Boletín Oficial del País Vasco* de 20-2-2002) por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, en relación con el Decreto 39/1981, de 2 de marzo (*Boletín Oficial del País Vasco* de 2-4-1981) y con el Real Decreto 1.040/1981, de 22 de mayo (*Boletín Oficial del Estado* de 6-6-1981) sobre registro de convenios colectivos.

*Segundo.* El convenio ha sido suscrito de conformidad con los requisitos de los artículos 85, 88, 89 y 90 de la referenciada Ley del Estatuto de los Trabajadores.

En su virtud,

RESUELVO

*Primero.* Ordenar su inscripción y depósito en la Sección Territorial de Gipuzkoa del Registro de Convenios Colectivos, con notificación a las partes.

*Segundo.* Disponer su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

*Tercero.* Contra la presente resolución, que no agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso de alzada ante el Director de Trabajo y Seguridad Social en el plazo de un mes, de acuerdo con lo establecido en los artículos 114 y siguientes de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Donostia-San Sebastián, a 19 de enero de 2005.—La Delegada Territorial, Gemma Jauregi Beldarrain.

(695) (825)

*Acta de firma de moficaciones al Convenio Colectivo de Artes Gráficas e Industrias Auxiliares, Manipulados de Papel y Cartón y Editoriales de Gipuzkoa 2004-2006*

En Donostia-San Sebastián, a 24 de noviembre de 2004, a las 10:00 horas, se reúnen, en la Sede Territorial del C.R.L. en Donostia-San Sebastián, los citados al margen, representantes

ADEGI enpresa-erakundearen ordezkariak diren aldetik. LAB eta CC.OO. sindikatuek (bien artean %60,78ko ordezkaritasuna dute) eta ADEGIk (ELAren ordezkariek ez dituzte sinatu beherago aipatzen diren erabakiak), Hitzarmeneko bosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat, ondoko erabaki hauek hartu dituzte:

1. I. eranskina aldatzea, 03-12-31n indarrean zeuden kopuruak 2004. urterako %3,6 gehituz. 2005. urterako, 2004ko balioek 2004. urteko benetako KPIaren %135ari dagokion gehikuntza izango dute, KPI gehi puntu bateko bermearekin. 2006. urterako, 2005eko balioek 2005. urteko KPIaren %135ari dagokion gehikuntza izango dute, KPI gehi puntu bateko bermearekin.

2. Hitzarmenaren II. eta IV. eranskinak aldatzea, erantsitako agirian agertzen diren zenbatekoetan.

3. III. eranskina aldatzea, erantsitako agirian agertzen den lanaldia ezarriz 2004, 2005 eta 2006. urteetarako.

4. Honako artikulu hauek aldatzea, erantsitako agirian agertzen den moduan:

23.— Ordainsariak.

35.— Lanaldia.

5. Artikulu berri bat sartzea lehengo 31. artikuluaren ordez. Hona hemen:

*31. artikulua. Gutxieneko puntuazioa sektorean hartutako esperientziaren arabera.*

Arte grafikoen sektoreko enpresetan 6 hilabetez, jarraian edo aldizka, lan egin duten langile guztiek (Hitzarmeneko 2. artikuluan jasotako esparru funtzionalaren arabera) besterik gabe 1,28ko puntuazioa lortuko dute, puntuazio txikiagoa badute. Arau hori 2005. urteko urtarrilaren batean jarriko da indarrean, eta egun horretara arte egindako lan-aldiak konputagarriak izango dira ondorio horretarako.

Arte grafikoen sektoreko enpresetan 12 hilabetez, jarraian edo aldizka, lan egin duten langile guztiek (Hitzarmeneko 2. artikuluan jasotako esparru funtzionalaren arabera) besterik gabe 1,34ko puntuazioa lortuko dute, puntuazio txikiagoa badute. Arau hori 2006. urteko urtarrilaren batean jarriko da indarrean, eta egun horretara arte egindako lan-aldiak konputagarriak izango dira ondorio horretarako.

6. 40. artikulua (Soldadutza) kentzea.

7. ADEGIren eta Hitzarmen Kolektiboari buruzko akordioa egiteko behar adinako gehiengoak dituzten sindikatu sinatzaileen ordezkariek hura erregistratzeko eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko eskatu diote Lan Agintaritzari. Halaber, Hitzarmenaren testu bategin osoa erantsi da, publizitaterako.

Eta aztertzeko beste gairik egon ez denez, bilkurari amaiera eman zaio goian adierazitako lekuan eta egunean.

*23. artikulua. Ordainsariak.*

A) Ordainsari taulak.

Lanpostu desberdinen kalifikazio mailei dagozkien ordainsariak 2004ko urtarrilaren 1etik 2004ko abenduaren 31ra arte, erantsitako ordainsari tauletan agertzen direnak izango dira.

de las Centrales Sindicales y de la Organización Empresarial ADEGI, adoptando, las Centrales sindicales de L.A.B.y CC.OO. (con el 60,78% de representatividad en total entre las dos centrales sindicales) y ADEGI, (la representación de E.L.A. no suscribe los acuerdos que más adelante se señalan) y de conformidad con lo establecido en la Disposición Adicional Quinta del Convenio los siguientes acuerdos:

1.º Modificar el Anexo I incrementando las cantidades vigentes al 31.12.03 en un 3,6% para el año 2004. Para el año 2005 se incrementarán los valores del 2004 en el equivalente al 135% del I.P.C. real del año 2004 con la garantía del IPC más un punto. Para el año 2006 se incrementarán los valores del 2005 en el equivalente al 135% del I.P.C. real del año 2005 con la garantía del IPC más un punto.

2.º Modificar los Anexos II y IV del Convenio en las cantidades que figuran en el documento adjunto.

3.º Modificar el Anexo III estableciéndose la jornada laboral para los años 2004, 2005 y 2006 según lo establecido en el documento adjunto.

4.º Modificar los artículos siguientes según el documento adjunto:

23.— Retribuciones.

35.— Jornada de trabajo.

5.º Incluir un nuevo artículo en sustitución del antiguo 31.º con el siguiente texto:

*Artículo 31.º Puntuación mínima según experiencia en el sector.*

Todo el personal que haya trabajado durante 6 meses, consecutivos o alternos, en empresas del sector de Artes Gráficas (según ámbito funcional recogido en el art. 2.º del Convenio), accederá automáticamente a la puntuación de 1,28 si la que ostentaba fuera inferior a ésta. Esta obligatoriedad entrará en vigor el uno de enero del año 2005, siendo computables a tal efecto los periodos de trabajo realizados con anterioridad a dicha fecha.

Todo el personal que haya trabajado durante 12 meses, consecutivos o alternos, en empresas del sector de Artes Gráficas (según ámbito funcional recogido en el art. 2.º del Convenio), accederá automáticamente a la puntuación de 1,34 si la que ostentaba fuera inferior a ésta. Esta obligatoriedad entrará en vigor el uno de enero del año 2006, siendo computables a tal efecto los periodos de trabajo realizados con anterioridad a dicha fecha.

6.º Suprimir el artículo 40.º Servicio Militar.

7.º Las representaciones de ADEGI y de las Centrales Sindicales firmantes que ostentan las mayorías exigidas para la adopción de un Acuerdo de Convenio Colectivo, solicitan de la Autoridad Laboral su registro y publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa. Así mismo se adjunta el texto refundido completo del Convenio a los efectos de publicidad.

Y sin más asuntos que tratar, se levanta la sesión en el lugar y fecha indicados.

*Artículo 23.º Retribuciones.*

A) Tablas Salariales.

Las retribuciones que corresponden a los niveles de calificación de los diferentes puestos de trabajo serán desde el 1.º de enero de 2004 al 31 de diciembre de 2004, las que figuran en

2003ko abenduaren 31n indarrean zeudenak %3.6an gehituz (2003ko KPI + 1 puntu) finkatu dira.

Hitzarmeneko Batzorde Interpretatzaile Mistoak landuko du 2005 eta 2006rako gutxienezko ordainsarien taula, 2004 eta 2005ari dagokion KPI ezagutu ondoren. Ondorio horietarako, 2005. urtean jaso beharreko ordainsariek 2004ko KPI gehi KPI horren %35eko gehikuntza izango dute.

2006. urtean jaso beharreko ordainsariek 2005eko KPI gehi KPI horren %35eko gehikuntza izango dute.

Hitzarmenaren oinarrizko soldata, A zutabea, antzinatasun, aparteko haborokin, etekin eta nekagarritasun, arriskugarritasun, toxikotasun eta gauekotasunen plusen kalkuluen erabateko eraginetarako ezartzen da.

B) Benetako soldatak.

Benetako soldatak, aintzakotzat urteroko kobratze gordinak ulertzen direlarik, antzinatasun, penagarritasun, arriskutasun, toxikotasun eta gauekotasun gehigarriak kenduaz, enpresa bakoitzaren barruan ezarriko dira, 24. artikuluak ezarritakoaren kaltetan izan gabe.

*35. artikulua. Lan-jarduna.*

Lanorduen kopurua, urteko zenbaketan, III. Eranskinean ezarritakoa izango da.

Jardun jarraitu edo txandakatuan atsedenaldiek sortutako etenaldiek, produkzioaren hausketa bat suposa dezaketen lanpostu haietan, enpresek, eta beste akordio posibleen kaltetan izan gabe, atsedenaldien betebeharra ordezkatzeko gaitasuna emana izango dute, kasu honetan lan-jarduna efektiboa III. Eranskinean ezarritakoa izango delarik.

Enpresa-Batzorde eta Zuzendaritzaren artean esandako lanpostuetan atsedenaldiak produkziorako kaltegarritasunaz beste iritzia dagoen kasuan, Batzorde Misto Interpretatzailearen irizpenera menperatuko da, eta honek, gehiengozko ebazpenik eman ezin badu, Lan Agintaritza eskudunera, honek jardun jarraitu eta txandakatuen atsedenaldiak kentzea baimenduko baitu.

Aldez aurretik, III. Eranskinean ezarritako urteko lan-jardun efektiboa baino laburragoa burutzen ari ziren langile haiek, beren urteroko lan-jardunak mantenduko dituzte, honela 2004, 2005 eta 2006. urteetan zehar ezein langilek, 2003an baino lan-jardun efektibo luzeagoa ezin egin izango du.

Bestalde, artikulu honetan kontsignatu diren jardunek beste edozein jardunen murriztapenak zurgatu eta konpentsatuko dituzte, edozein zergatiarengatik aurrerantzean ezarri zitezkeen edo ezarriko diren, lege xedapen aplikagarriaren lerruna edozein delarik ere.

las tablas salariales anexas y se han elaborado incrementando las existentes a 31 de diciembre de 2003 en un 3,6% (I.P.C. de 2003 + 1 punto)

Para 2005 y el año 2006 las tablas de retribuciones mínimas se elaborarán por la Comisión Mixta Interpretativa de Convenio una vez conocido el IPC correspondiente a 2004 y 2005. A estos efectos las retribuciones a percibir en 2005 experimentarán un incremento equivalente al I.P.C. de 2004 más el 35% de dicho I.P.C. con una garantía del IPC más un punto.

Para 2006 las tablas salariales se incrementarán en el equivalente al I.P.C. de 2005 más el 35% de dicho I.P.C. con una garantía del IPC más un punto.

El salario base de convenio, Columna A, se establece a los exclusivos efectos de los cálculos de antigüedad, gratificaciones extraordinarias, beneficios, pluses de nocturnidad, penosidad, peligrosidad y toxicidad.

B) Salarios Reales.

Los salarios reales, entendiendo como tales las percepciones brutas anuales, excluyendo los pluses de antigüedad, penosidad, peligrosidad, toxicidad y nocturnidad, se establecerán en su caso, en el seno de cada empresa, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 24.º

*Artículo 35.º Jornada de trabajo.*

El número de horas a trabajar, en cómputo anual será el establecido en el anexo III.

En aquellos puestos de trabajo en que las interrupciones motivadas por los descansos en jornada continuada o turnos supongan un quebranto para la producción, las empresas, y sin perjuicio de otros posibles acuerdos, estarán facultadas para sustituir la obligación de los descansos, en cuyo caso la jornada efectiva de trabajo será la establecida en el anexo III

En caso de que exista discrepancia entre la Dirección y el Comité de Empresa sobre el perjuicio para la producción de los descansos en dichos puestos de trabajo, se someterá la misma al dictamen de la Comisión Mixta Interpretativa, y caso de que no exista acuerdo, será la Autoridad Laboral competente, quien en todo caso deberá autorizar la supresión de los descansos en la jornada continuada y turnos.

Aquellos trabajadores que viniesen realizando con anterioridad una jornada efectiva anual inferior a las establecidas en el Anexo III, mantendrán sus jornadas anuales de trabajo de forma que ningún trabajador pueda realizar durante 2004, 2005 y 2006, mayor jornada efectiva de trabajo que en 2003.

Por otra parte las jornadas consignadas en este artículo absorberán y compensarán cualesquiera otras reducciones de jornada que, por cualquier motivo, se hubieran establecido o se establezcan en lo sucesivo, cualquiera que sea el rango de la disposición legal aplicable.

I. ERANSKINA / ANEXO I

2004-01-01ETIK 2004-12-31RA BITARTEAN INDARREAN EGONGO DIREN ALOKAIRU TAULAK / TABLAS SALARIALES VIGENTES PARA EL PERIODO 01.01.04 AL 31.12.04

| HILEKO ORDAINSARIKO LANGILEAK<br>PERSONAL CON RETRIBUCIÓN MENSUAL | | | |
|---|---|---|---|
| *Kalifikazioa<br>Calificación* | *Hitzarmeneko oinarrizko soldata<br>Salario base convenio*<br>*"A" zutabea / Columna "A"* | *Soldata osoa<br>Salario total* | *Urtekoa<br>Anualizado* |
| 1,16 | 524,94 | 938,52 | 13.374,05 |
| 1,22 | 552,13 | 967,26 | 13.803,77 |
| 1,28 | 579,30 | 995,95 | 14.232,82 |
| 1,34 | 606,40 | 1.024,66 | 14.661,89 |
| 1,40 | 627,77 | 1.043,70 | 14.957,04 |
| 1,47 | 659,14 | 1.076,87 | 15.452,96 |
| 1,55 | 695,02 | 1.114,80 | 16.020,06 |
| 1,63 | 730,91 | 1.152,71 | 16.586,96 |
| 1,70 | 762,31 | 1.185,84 | 17.082,49 |
| 1,80 | 807,13 | 1.233,26 | 17.791,37 |
| 1,90 | 851,96 | 1.280,68 | 18.500,28 |
| 2,00 | 896,80 | 1.328,00 | 19.208,02 |
| 2,10 | 941,65 | 1.375,46 | 19.917,47 |
| 2,40 | 1.076,12 | 1.517,61 | 22.042,81 |
| 2,60 | 1.165,87 | 1.612,35 | 23.459,71 |
| 2,80 | 1.255,49 | 1.707,18 | 24.877,29 |
| 3,00 | 1.345,20 | 1.801,96 | 26.294,54 |
| 3,10 | 1.390,00 | 1.849,28 | 27.002,16 |
| 3,90 | 1.748,75 | 2.228,48 | 32.671,86 |

| EGUNEKO ORDAINSARIKO LANGILEAK<br>PERSONAL CON RETRIBUCION DIARIA | | | |
|---|---|---|---|
| *Kalifikazioa<br>Calificación* | *Hitzarmeneko oinarrizko soldata/egunean<br>Salario base convenio/día*<br>*"A" zutabea / Columna "A"* | *Soldata osoa<br>Salario total* | *Urtekoa<br>Anualizado* |
| 1,16 | 17,49 | 31,14 | 13.516,70 |
| Peioa / Peón | 17,49 | 31,93 | 13.805,84 |
| 1,22 | 18,41 | 32,12 | 13.961,93 |
| 1,28 | 19,31 | 33,03 | 14.379,66 |
| 1,34 | 20,21 | 34,07 | 14.844,98 |
| 1,40 | 20,95 | 34,65 | 15.126,88 |
| 1,47 | 21,97 | 35,77 | 15.632,76 |
| 1,55 | 23,18 | 37,01 | 16.200,43 |
| 1,63 | 24,40 | 38,29 | 16.783,69 |
| 1,70 | 25,43 | 39,41 | 17.290,51 |
| 1,80 | 26,94 | 41,03 | 18.025,50 |
| 1,90 | 28,40 | 42,61 | 18.741,13 |
| 2,00 | 29,87 | 44,15 | 19.443,07 |
| 2,10 | 31,41 | 45,75 | 20.173,55 |
| 2,20 | 32,88 | 47,32 | 20.886,47 |
| 2,30 | 34,38 | 48,93 | 21.616,85 |

II. ERANSKINA

## APARTEKO HABOROKINAK ETA MARTXOKO PAGA

— Aparteko haborokinak:

2004.01.01etik 2004.12.31ra: 158 euro.

2005.01.01etik 2005.12.31ra: 176 euro.

2006.01.01etik 2006.12.31ra: 194 euro.

— Martxoko paga:

2004.01.01etik 2004.12.31ra: 158 euro.

2005.01.01etik 2005.12.31ra: 176 euro.

2006.01.01etik 2006.12.31ra: 194 euro.

III. ERANSKINA

## LAN-JARDUNA

— Jardun etena:

1.704 lanordu efektibo 2004rako; 1.700 ordu 2005erako eta 1.696 ordu 2006. urterako.

— Jardun jarraikoa eta txandak:

2004. urterako: 1.649 lanordu efektibo ondorengo paragrafoan aurreikusitako balizkoan edota 1.704 ordu efektiboko baliokidea, lanordutzat hartuko den 15 minutuko atsedenaldia barne dela.

2005. urterako, ordu kopurua 1.645 eta 1.700ekoa izango da, hurrenez hurren.

2006. urterako, ordu kopurua 1.641 eta 1.696koa izango da, hurrenez hurren.

IV. ERANSKINA

## ASEGURU-POLIZA

Hitzarmen hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara eman ondoren, 15. egunetik aurrera, honako zenbateko hauek jarriko dira indarrean:

55. artikuluaren a) atala: 39.500 euro.

55. artikuluaren b) atala: 17.000 euro.

ANEXO II

## GRATIFICACIONES EXTRAORDINARIAS Y PAGA DE MARZO

— Gratificaciones extraordinarias:

Periodo 01.01.2004 al 31.12.2004: 158 euros.

Periodo 01.01.2005 al 31.12.2005: 176 euros.

Periodo 01.01.2006 al 31.12.2006: 194 euros.

— Paga de marzo:

Periodo 01.01.2004 al 31.12.2004: 158 euros.

Periodo 01.01.2005 al 31.12.2005: 176 euros.

Periodo 01.01.2006 al 31.12.2006: 194 euros.

ANEXO III

## JORNADA DE TRABAJO

— Jornada partida:

1.704 horas efectivas de trabajo para 2004, 1.700 para 2005, 1.696 para 2006.

— Jornada continuada y turnos:

Para 2004: 1.649 horas efectivas, en el supuesto contemplado en el párrafo siguiente, o su equivalente de 1.704 horas de trabajo efectivo, incluyendo quince (15) minutos de descanso que se computará como tiempo de trabajo.

Para 2005 el número de horas será de 1.645 y 1.700 respectivamente.

Para 2006 el número de horas será de 1.641 y 1.696 respectivamente.

ANEXO IV

## POLIZA DE SEGURO

A partir de 15 días desde la publicación de este acta en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa entrarán en vigor los siguientes capitales:

Apartado a) del art. 55.º: 39.500 euros.

Apartado b) del art. 55.º: 17.000 euros.

Laguntza sendoa
zeure ondoan egunero

www.labsindikatua.org

# Egoitzak

## Gipuzkoa

AFILIA ZAITEZ !!!!
AFILIATE !!!!

| | | | |
|---|---|---|---|
| **GIPUZKOA** | Pokopandegi, 9 -2. | Tl. 943 326 782 | gipuzkoa@labsindikatua.org |
| **PROPAGANDA** | San Blas, 1 behea. | Tl. 943 458 640 | propagandagipuzkoa@labsindikatua.org |
| **ARRASATE** | Garibai etorbidea, 14 2. | Tl. 943 797 408 | arrasate@labsindikatua.org |
| **AZPEITIA** | Enpara Kalea, 11 1 esk | Tl. 943 151 356 | azpeitia@labsindikatua.org |
| **BEASAIN** | Oria pasalekua, 2 | Tl. 943 881 234 | beasain@labsindikatua.org |
| **BERGARA** | Ibargarai, 39 behea | Tl. 943 760 189 | bergara@labsindikatua.org |
| **DONOSTIA** | San Blas, 1 behea. | Tl. 943 458 640 | donostia@labsindikatua.org |
| **EIBAR** | Bidebarrieta, 10-1. | Tl. 943 820 489 | eibar@labsindikatua.org |
| **ELGOIBAR** | San Frantzisko, 20-1 | Tl. 943 743 886 | |
| **HERNANI** | Kardaberaz, 56-58 | Tl. 943 336 062 | hernani@labsindikatua.org |
| **IRUN** | Urantzu, 23-1 B. | Tl. 943 624 714 | irun@labsindikatua.org |
| **LASARTE** | Hipodromo etorb., 14 behea. | Tl. 943 370 018 | lasarte@labsindikatua.org |
| **LEGAZPIA** | Itxaropen, 17.behea | Tl. 943 730 383 | legazpia@labsindikatua.org |
| **OÑATI** | Atzeko kale, 32-behea. | Tl. 943 718 842 | oinati@labsindikatua.org |
| **ORERETA** | Nafarroako hiribidea, 61-2.ezk. | Tl. 943 344 541 | orereta@labsindikatua.org |
| **ORIO** | San Nicolás, 4. | Tl. 943 130 978 | |
| **SORALUZE** | Ezozia Ibilbidea, zg. | Tl. 943 752 204 | |
| **TOLOSA** | Gorosabel Pasealekua, 29-1. | Tl. 943 670 026 | tolosa@labsindikatua.org |
| **ZARAUTZ** | Zigordia, 11 -1. | Tl. 943 894 374 | zarautz@labsindikatua.org |

Apoyo firme a tu lado